

ANTXIÑAKO 📷 FOTOGRAFIAK



Oñatiko herritarren parte hartzea Eusko Ikaskuntzaren I. Kongresuan

Eusko Ikaskuntzak bere **mendeurrena** ospaketako gure herrixan antolatu dittuan batzarrak eta jaixak pasau barri dira. Hurretik ikusi ezpadittuzue be, komunikabidietan agertu diran albiste eta argazkixen bidez enterauko ziñain Oñatin zemendixaren 23an eta 24an egon dan mugimenduaz. **Makiñatxo bat agintari eta personaje** inguratu zan hona.

Antolamendu horretan Eusko Ikaskuntza berak ez ezik, **Oñatiko udalak, San Migel parroxiak, Oñatz dantza-taldiak, udal txistulariak** eta **Artixa kultura-taldiak** be parte hartu daue, neurri desbardiñian. Artixakuak **bi hitzaldi** emun zittuain aurreko egunetan kultura-etxian, eta mendeurrenaren gaiñeko **argazki-erakusketia** montau euen parrokiako klaustruan.

Klaustroko erakusketa horretan orain dala ehun urteko **batzarrian berba egin euen hizlarixak**; kongresuan egindako, harrera, **prozosiño, auresku, soka-dantza edota herri-jolasak**; eta sasue haretako **Oñati eta oñatiarren irudixak** agerketan ziran dozenaka fotografixetan. Badakigu kongresistatik aparte, herritar dezente be ikusi dittuala argazkixok.

Ba, gaur **exposiziño horretako fotografixa pare bat** aukeratu dotzuegu. Orain dala gizaldi bateko kongresuan be Oñatiko herrixak parte-hartze haundixa euki ebela gauza jakiña da. Baiña ez agintari eta jauntxuak bakarrik; **oñatiar korrienteguak be saiatu ziran euren aletxua jarten**, 1918ko agorraren lehenengo astian ospatu zan euskal kulturaren inguruko batzar inportante ha ondo atara zedin. Arratsaldeko jai eta ikuskizunen artian, agorraren 5ian ezkontza tradizionalaren agerraldixa erakutsi euen Goribar auzoko neska-mutillak.

Argazki txikiñari erreparaitten baxatzue, **konturatuko zarai kuadrilla majua alkartu zala**. Arboledan atarata dago, Olalde baserrixaren aurrian, plaza aldera urten aurretik; atzian kamiñotik Torrealderaiñoko soro-saillak agiri dira, artian iñolako etxe barik. Plazako fotografixan, berriz, **ezkontzaiaren barruan izaten zan arrio-erakustia** ikusi geinke: ezkonbarrixak eta euren aitta eta ama-puntakuak nahiz testiguak. Atzian, burdi gaiñian, andrageixaren arriua: **koltxoiak, izarak, mantelak, komodia**, eta abar. Hainbeste bider argittaratu dan plazako argazki horretako protagonisten izen batzuk jakittia lortu dogu, han eta hemen galdetuaz. **Goribar-Kasablanka eta Garibai aldeko auzotarrak** dittuzue. Honeitxek ezagutu dittugu ezkerretik eskumara:

X. X.; Martiña Egaña, Garibaigoittikua, gero San Pedroko Torrera ezkondu zana; **X. X.**, aittapuntakua [?]; **X. X.**, senargeixa; **Lauriana Beitia**, andrageixa, Kasablankakua, Kerejetarren ama; **Maria Etxeberria**, amapuntakua, Berezaio auzoko Korriunekua zan, ordurako Goribar baserrira ezkondua; **Xexili Egaña**, Errotabarrikua; **Joxe Mari Lizaur**, Goribar baserrikua, gerora Xexilirekin ezkonduko zana; eta burdi gaiñeko ezkerrekua **Tomas Ugarte**, Olaldekoa.

Argazkixak Oñatiko Udal Artxibokuak dira. Guk Joxe Fernandez bidez eskuratu dittugu. Argibide batzuk Maria Luisa Lizaurrek eta Martina Ugartek emun doskue. Ia falta diran izenak identifikaitten lagunketan doskuzuen. Milla esker.